



**PARQUE TECNOLÓGICO DE ÁLAVA-ARABAKO
TEKNOLOGI ELKARTEGIA, S.A.**

Gobernu Korporatiboaren Txostena 2023

2024ko martxoa



1. 1. JABETZAREN EGITURA

1.1. Sozietatearen kapitala

2023ko abenduaren 31n, hauxe da Sozietatearen kapitala:

Azken aldaketa-data	Kapital soziala (€)	Akzio-kopurua	Boto-eskubideen kopurua
2023/12/26	73.189.447	1.199.827	1.199.827

Akzioak izendunak dira -bakoitza 61 euro nominalekoa eta guztiak mota berekoak- eta erabat harpidetuta eta ordainduta daude.

2023ko abenduaren 31n autonomia-erkidegoetan erregistratutako kapitala 2023ko abenduaren 26an eskrituratu zen, eta 2024ko urtarrilaren 23an inskribatu zen merkataritza-erregistroan.

1.2. Ekitaldiaren itxiera-datan, honako hauek dira partaidetzen titular zuzenak:

Akziodunaren izena edo izen soziala	Boto-eskubide zuzenen kopurua	Boto-eskubide guztien araberrako %
SPRI- GARAPENERAKO EUSKAL AGENTZIA	885.729	% 73,82
ARABA GARAPEN BULEGOA	293.422	% 24,46
VITORIA-GASTEIZKO UDALA	20.676	% 1,72

1.3. Ekitaldian zehar, akzio-egituran mugimenduak gertatu dira.

1.3.1 Kapital-gehikuntza:

Sozietatearen Akziodunen Batzarrak 4.849.988 €-ko kapital-gehikuntza onartu zuen 2023ko ekainaren 14an, eta harpidetzaren unean ordaindu behar izan da balio nominala oso-osorik. Hurrengo koadroan akziodunek harpidetu eta ordaindutako kopuruak agertzen dira:

Akzioduna	Zenbatekoa (€)
SPRI- GARAPENERAKO EUSKAL AGENTZIA	4.849.988 €
ARABA GARAPEN BULEGOA	0 €
VITORIA-GASTEIZKO UDALA	0 €
GUZTIRA	4.849.988 €



Data berean, Akziodunen Batzarrak 1.999.946 €-ko kapital-gehikuntza onartu zuen, eta harpidetzaren unean ordaindu behar izan da balio nominala oso-osorik. Hurrengo koadroan akziodunek harpidetu eta ordaindutako kopuruak agertzen dira:

Akzioduna	Zenbatekoa (€)
SPRI- GARAPENERAKO EUSKAL AGENTZIA	1.476.383 €
ARABA GARAPEN BULEGOA	489.098 €
VITORIA-GASTEIZKO UDALA	34.465 €
GUZTIRA	1.999.946 €

- 1.4. Administrazio Kontseiluko kideek ez dute Sozietatearen akziorik.
- 1.5. Sozietateari ez zaio jakinarazi partaidetza esanguratsuen titularren arteko merkataritza, kontratu edo sozietate arloko harremanik.
- 1.6. Sozietateari ez zaio jakinarazi harengan eragina izan dezakeen hitzarmen parasozialik, eta ez da ezagutzen bere akziodunen arteko ekintza itundurik.
- 1.7. Sozietateak ez du akziorik autozorroan.
- 1.8. Estatutuetan ez dago mugarik boto-eskubideak gauzatzeari dagokionez.
- 1.9. Estatutu Sozialen 2. artikuluan ondoko murrizketak ezartzen dira kapital sozialaren partaidetzen eskualdatzeri dagokienez:

"Sozietatearen akzioak besterendu gura dituen akziodunak, nahi hori idatziz jakinarazi beharko dio Administrazio Kontseiluari. Administrazio Kontseiluak hilabeteko epean jakinaraziko die gainerako akziodunei. Akziodunek hile biko epea izango dute erosteko aukera izan eta erosketa gauzatzeko. Akzioak erosi gura dituztenak bat baino gehiago badira, horien artean banatuko dira, bakoitzaren partaidetzaren hainbanaketan.

Baldin eta salgai dauden akzioak gura dituen bazkiderik ez badago, Sozietateak erosi ahalko ditu, hogeita hamar eguneko epean, Legeak ezarritako muga eta ondorioekin.

Behin epea igarota, bazkidea den erakundea edo pertsona libre izango da bere akzioak eskualdatzeko egoki deritzon moduan; horretarako, hile biko epea izango du.

Lehentasunez erosteko eskubidea egikaritzeko, salmenta-prezioa, gutxienez eskualdatu beharreko akzioen balio errealarri dagokiona, desadostasunik izanez gero, peritatze bidez finkatuko da, zeinaren titulartasuna alderdiek adostasunez izendatuko baitute, eta, halakorik ezean, epailetza eskudunak izendatuko du.

Baliogabetzat hartuko dira Sozietatetik kanpoko pertsonen egiten zaizkien akzio-eskualdaketak, baldin eta estatutuetan ezarritakora doitzen ez badira."



2. SOZIETATEAREN ADMINISTRAZIO-EGITURA

2.1. Estatutuetan, honako kontseilari-kopuru hau dago aurreikusita:

Estatutu Sozialen 8. artikuluan ondokoa ezartzen da: "Zazpi kidek osatuko dute Administrazio Kontseilua, Batzar Nagusiak izendatuko ditu, akziodunek hala proposatuta...".

2010.06.17ko Batzarrean, aldaketa bat egin zen Estatutu Sozialen 8. artikuluan, Administrazio Kontseiluari buruzkoan. Artikulu horretan, 9 kontseilari izatera zabaldu zen kontseilarien kopurua.

2022ko abenduaren 31n, zehaztutako kontseilari-kopurua bederatzikoa (9) da.

2.2. 2023ko abenduaren 31n, Administrazio Kontseiluko kideak ondorengoak dira:

Kontseilariaren izena edo izen soziala	Kontseiluan duen kargua	Lehenengo izendapenaren data	Azken izendapenaren data
María Itziar Gonzalo de Zuazo and.	Kidea	2019.12.10	2023.10.04
María Nanclares Caballero and.	Kidea	2023.10.04	
Saray Zárate Fernández de Landa and.	1. presidenteordea	2023.10.04	
Mikel Amundarain Leibar jn.	Kidea	2021.10.06	
Ander Larrinaga Saiz jn.	Idazkaria	2023.10.04	
Estibaliz Hernáez Laviña and.	Presidentea	2013.02.20	2023.06.14
Leyre Madariaga Gangoiti and.	Kidea	2020.11.12	
Aitor Cobanera Rodríguez jn.	Kidea	2014.03.19	2019.06.12
Aitor Urzelai Inza jn.	Kidea	2014.06.19	2019.06.12

Hautaketa-prozedura kasu guztietan: azaroaren 6ko 2/2007 Legegintzako Dekretuan ezarritakoa, Ondareari buruzko Euskadiko Legearen testu bategina onesten duena.

2.3. 2023ko ekitaldian, Administrazio Kontseiluan kontseilarien kargu-uzteak izan dira.

Izena	Kontseilariaren egoera kargua uzteko unean	Bajaren data
Estibaliz Hernáez Laviña and.	Presidentea	2023.06.14
Javier Hernando García jn.	Idazkaria	2023.10.04
Maidier Etxebarria García and.	Kidea	2023.10.04
Pilar García de Salazar Olano and.	1. presidenteordea	2023.10.04
María Itziar Gonzalo de Zuazo and.	Kidea	2023.10.04



2.4. 2022ko ekitaldian ez da izendapenik egin, ezta aldaketarik ere, Administrazio Kontseiluan.

Izena	Kontseilariaren egoera	Altaren data
Estibaliz Hernáez Laviña and.	Presidentea	2023.06.14
Saray Zárate Fernández de Landa and.	1. presidenteordea	2023.10.04
Ander Larrinaga Saiz jn.	Idazkaria	2023.10.04
María Nanclares Caballero and.	Kidea	2023.10.04
María Itziar Gonzalo de Zuazo and.	Kidea	2023.10.04

2.5. Kontseilari berriek ondoko dokumentazioa dute eskura euren prestakuntza eta orientabiderako:

- a. Abuztuaren 11ko 232/1992 Dekretuak baimena eman dio Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzua SAr «Parque Tecnológico de Álava, S.A.» sozietate publikoa sortzeko.
- b. Arabako Teknologi Elkartegia SAr en estatutu sozialak (testu bategina).
- c. Administrazio Kontseiluaren Estatutua.
- d. Arabako Teknologi Elkartegia SAr en kode etikoa.
- e. Arabako Teknologi Elkartegia SAr en organigrama.
- f. Gobernu Korporatiboaren txostena (Administrazio Kontseiluaren osaera barne)
- g. Arabako Teknologi Elkartegia SAr en aurrekontuak.
- h. Administrazio Kontseiluaren azken hamabi hilabeteetako akten kopia.

2.6. Honako hauek dira kontseilari exekutiboak:

Kontseilariaren izena edo izendapena	Duen kargua
Estibaliz Hernáez Laviña and.	Presidentea
Aitor Urzelai Inza jn.	Kidea

Kontseilari exekutiboen kopurua guztira	2
Kontseiluaren % guztira	% 22



2.7. Jabariko kanpo-kontseilariak honako hauek dira gaur egun:

[OHARRA: SPRIkoak, Vitoria-Gasteizko Udalekoak eta Araba Garapen Bulegokoak dira]

Kontseilariaren izena edo izendapena	Ordezkatzen duen edo izendatzeko proposatu duen akziodun adierazgarriaren izena edo izendapena
María Nanclares Caballero and.	VITORIA-GASTEIZKO UDALA
Saray Zárate Fernández de Landa and.	ARABA GARAPEN BULEGOA
María Itziar Gonzalo de Zuazo and.	ARABA GARAPEN BULEGOA
Ander Larrinaga Saiz jn.	ARABA GARAPEN BULEGOA
Mikel Amundarain Leibar jn.	SPRI- GARAPENERAKO EUSKAL AGENTZIA
Aitor Cobanera Rodríguez jn.	SPRI- GARAPENERAKO EUSKAL AGENTZIA
Estibaliz Hernáez Laviña and.	SPRI- GARAPENERAKO EUSKAL AGENTZIA
Leyre Madariaga Gangoiti and.	SPRI- GARAPENERAKO EUSKAL AGENTZIA
Aitor Urzelai Inza jn.	SPRI- GARAPENERAKO EUSKAL AGENTZIA

Jabariko kontseilari kopurua guztira	9
Kontseiluaren % guztira	% 100

Urtean zehar ez da aldaketarik egon kontseilarien tipologiari dagokionez.

2.8. Administrazio Kontseiluak ez du kontseilari delegaturik izendatu.

2.9. Ez da Administrazio Kontseiluaren Batzorde Iraunkorrik eratu.

2.10. Kontseiluko kide batzuek administratzaile edo zuzendaritzako karguak dituzte SPRI Taldea osatzen duten beste sozietate batzuetan.

2023ko ekitaldian, Sozietateko administratzaileek ez dute Sozietatearekin ezta Taldeko sozietateekin ere ohiko salerosketez besteko edo merkatuaren baldintzak betetzen ez dituen eragiketarik egin.

Era berean, 2023ko ekitaldiaren itxieran, ez Parque Tecnológico de Álava - Arabako Teknologi Elkartegia, S.A.ko Administrazio Kontseiluko kideek eta ezta eurekin lotutako pertsonen ere –Kapital Sozietateei buruzko Legean zehaztutakoaren arabera– ez dute inolako harremanik izan jarduera mota dela-eta interes-gatazka diren –bai eurentzat bai Sozietatearentzat– beste sozietate batzuekin. Bestalde, 229. artikuluan adierazitako zentzuan, ez zaienez jakinarazpenik egin ez Administrazio Kontseiluari ezta gainontzeko administratzaileei ere, txosten honetan ez dago horren inguruko banakatzerik.

2.11. Sozietateak ez du araurik ezarri kontseilariak parte hartu dezaketen kontseilu kopuruari dagokionez.

2.12. Administrazio Kontseiluak bere gain hartzen dituen erantzukizunak enpresari dagokionez, ondokoak dira batez ere:

- Inbertsio- eta finantzaketa-politika.
- Administrazio Kontseiluaren Araudia.
- Urteko kudeaketa-plana, baita bere egikaritzeari buruzko ebaluazio partzialak ere.
- Goi-zuzendaritzako kideentzako pizgarriak eta euren jardueraren ebaluazioa.
- Enpresen onarpena.



- Sozietatearen eta bere talde kontsolidatuaren urteko kontuen formulazioa.
 - Eragiketa komertzialak, salmentak batez ere.
- 2.13. Sozietateak Kontseiluaren Estatutua du, Administrazio Kontseiluko kide guztiek berretsi eta sinatu dutena. Ondokoekin loturiko gaiak jasotzen ditu:
- Xedapen orokorrak.
 - Kontseiluaren osaketa.
 - Kontseiluaren egitura.
 - Kontseiluaren batzordeak.
 - Kontseiluaren funtzioak.
 - Kontseiluaren funtzionamendua.
 - Kontseilariak izendatzea eta euren kargua uztea.
 - Kontseilariaren betebeharrak (Kode Deontologikoa).
 - Kontseilariaren eskubideak eta ahalmenak.
 - Gobernu Korporatiboa.
- 2.14. 2023an, ez zaie Administrazio Kontseiluko kideei ordainsaririk eman.
- 2.15. Administrazio Kontseiluak ez du zuzendaritza-kargurik izendatu, azaroaren 15eko 156/2016 Dekretuan xedatutakoaren arabera.
- 2.16. Ez dago berme- edo blindaje-klausularik goi-zuzendaritzako kideen alde, ezta Sozietatearen kontseilari exekutiboaren alde ere.
- 2.17. 2023ko ekitaldian Administrazio Kontseiluaren Estatutua berrikusi da, hizkuntza inklusiboaren irizpideen arabera.
- 2.18. Batzar Nagusiak adosten du kontseilarien izendapena, berrautaketa eta kargua uztea, eta ez dago horretarako aurretzako prozedura espezifikorik.
- 2.19. Kontseilariak behartuta daude dimititzera honako kasu hauetan (Kontseiluaren Araudiaren 22. art.):
- *Aldi baterako izendatzen direnez, epealdi hori igarotzen denean edo Batzar Nagusiak, legez eta estatutu bidez dituen eskumenak erabiliz, erabakitzen duenean.*
 - *Legez aurreikusitako bateraezintasun- edo debeku-kasuren batean sartuta daudenean.*
 - *Kontseilari diren aldetik dituzten betebeharrak hausten dituztenean.*
 - *Kontseiluan jarraitzeak Sozietatearen interesak arriskuan jar ditzakeenean.*
- 2.20. Ahalordeak pertsona bakar batean metatzearen arriskuak mugatzeko, ondoko neurria hartu da: 300.000 eurotik gora, ahalordeak mankomunatuak dira Itziar Epalza Urquiaga andrearen, Aitor Urzelai Inza jaunaren eta Estibaliz Hernáez Laviña andrearen artean; funtsean, ondasun higigarriak nahiz higiezinak erosteko, saltzeko edo trukatzeko, kontratuak egiteko, formalizatzeko, esleitzeko, luzatzeko, aldatzeko, berritzeko, suntsiarazteko eta deuseztatzeke, mailegu- edo kreditu-eragiketarik sinatzeko eta formalizatzeko, era guztietako fidantzak, abalak, bahiak, hipotekak eta abar eratzeko, onartzeko eta ezeztatzeke.



- 2.21. Edozein motatako erabakiak hartzeko ez da legeak ezarritakoaz beste gehiago sendorik eskatzen eta akordioak erdia gehi bat quorumaren arabera hartuko dira.
- 2.22. Kontseiluko presidentetzari Estatutu Sozialetan eta Kontseiluaren Araudian ezarri zaizkion funtzioak, organo horren funtzionamenduari dagokionez, ondokoak dira:
- a.** Kontseiluaren bileretarako deialdia egitea eta horien buru izatea, ebazteko eta eteteko ahalmenarekin. Deliberazioak zuzenduko ditu, hitza nor duen erabaki eta mintzaldien iraupena zehaztuko du.
 - b.** Kontseiluaren bileren gai-zerrenda finkatzea.
 - c.** Kontseiluko kide guztiak bileretara bertara daitezen saiatzea; horretarako, Araudi honetan xedatzen den moduan eta epeetan bidaliko dira deialdiak.
 - d.** Kontseilariaren bat Kontseilura bertaratzen ez denean horren zioak egiaztatzea, ez bertaratzea errepikatzen denean.
 - e.** Kontseiluaren eta Batzarraren akordioak egikaritzea eta betearaztea.
 - f.** Kontseiluaren funtzionamenduaren ebaluazioa gainbegiratzea, ebaluaziotik eratorzen diren hobetze-proposamenak martxan jartzea, hala dagokionean, edo hautemandako eraginkortasunik eza zuzentzea.
- 2.23. Presidenteak kalitateko botoa du.
- 2.24. Estatutuek edo Kontseiluaren Estatutuak ez dute kontseilariaren adinari buruzko mugarik jartzen.
- 2.25. Ez dago prozesu formalik botoak Administrazio Kontseiluari eskuordetzeko, nahiz eta aktak idatziz egindako boto-eskuordetzeak baino ez jaso.
- 2.26. Administrazio Kontseiluak BOST bilera egin ditu 2023ko ekitaldian. Formatu mistoan egin dira: bideokonferentzia bidez eta aurrez aurre. Presidenteak lau bilkuratan izan da. Bere botoa bilkura batean eskuordetu du.
- 2.27. Orotara ekitaldian, kontseilariak 13tan ez dira agertu Administrazio Kontseiluaren bileretara, eta horietako bederatzitan eskuordetu egin da botoa.
- 2.28. Kontseiluari formulatuak izan daitezten aurkezten zaizkion urteko kontuak alde aurretik eginda daude, Miren Lourdes Bilbao Larrauri gerente andreak gainbegirata.
- 2.29. Administrazio Kontseiluak ez du mekanismorik ezarri berak formulatutako urteko kontuak Batzar Nagusian aurkeztea galarazteko, ikuskaritza-txosteneko salbuespenak kontuan izanda.
- 2.30. Kontseiluko idazkariak kontseilari izaera du.
- 2.31. Kontseiluaren osoko bilkurak onartzen du Kontseiluko idazkariaren izendapena eta kargu-uztea.
- 2.32. Kontseiluko idazkariaren funtzioa da funtzionamendu-arauak egoki aplikatzen eta aktak jasotzeko zein sinatzeko prozedurak egoki garatzen direla bermatzea. Horrez gain, akta-liburuak eta akziodunen liburuak zaindu behar ditu eta akordioak izapidetu.
- 2.33. Kontu-ikuskariaren independentzia bermatzeko, lehiaketa publikoaren mekanismoa erabiltzen du Sozietateak; hartara, publizitatea, objektibotasuna eta konkurrentzia bermatzen baitira.



- 2.34. 2023ko ekitaldiko Urteko Kontuen auditoretza-txostenean ez da erreserbarik edo salbuespenik ageri.
- 2.35. Egungo auditoretza-enpresa PKF ATTEST Servicios Empresariales, S.L. da eta sozietatearen urteko kontuen auditoria egiten duen bigarren urtea da, gaur egun kontratatuta dituen hiru urtetatik (2022, 2023 eta 2024), eta sozietatea eratu zenetik dago auditatuta.
- 2.36. Dagozkien funtzioak egiteko laguntza jasotze aldera, kontseilariak lege-aholkulariak, kontulariak, finantza-aholkulariak edo bestelako adituak kontrata ditzakete edo bileretara joan daitezten eska diezaiekete. Halako laguntzaile bat eskatzeko, beharrezkoa da argitu nahi diren arazoak gutxienezko munta eta konplexutasun maila izatea, eta karguaren jardunean agertutakoak izatea.
- Kontratatzeko erabakia Kontseiluko presidenteari jakinarazi beharko zaio eta betoa jar dakioko baldin eta ondokoa frogatzen bada:
- a. Agindutako funtzioak behar bezala gauzatzeko beharrezkoa ez bada.
 - b. Kostua arrazoizkoa ez bada, arazoak duen garrantzia ikusita.
 - c. Sozietateko aditu eta teknikariek egoki eman dezaketelako eskatutako laguntza teknikoa.
- 2.37. Kontseilariak administrazio-organoen bilerak nahikoa denborarekin prestatzeko behar den informazioa izan dezaten, gutxienez hamar egun naturaleko aurrerapenarekin bidaliko da deialdia, baldin eta gutun bidez egiten bada, eta zazpi eguneko aurrerapenarekin, baldin eta posta elektronikoko bidez egiten bada, kontseilariak kasu bakoitzean adierazitako helbidera. Deialdi horretan, bileraren gai-zerrenda eta dagokion informazioa emango dira beti. Bilerak, oro har, Sozietatearen egoitzan egingo dira, baina presidentetzak zehazten duen beste leku batean ere egin ahal izango dira, edo bitarteko telematikoen bidez, kontseilariak aldi berean leku desberdinetatik parte hartuta, ikus-entzunezko edo telefono bidezko bitartekoen bidez konektatuta, betiere bertan parte hartzen duten kideen errekonozimendua eta denbora errealeko interaktibitatea eta interkomunikazioa bermatzen badira, eta, beraz, egintza-batasuna bermatzen bada.
- 2.38. Administrazio Kontseiluko kideei etengabe informazioa emateko sistema garatu du enpresak. Hala, Administrazio Kontseiluaren bileren gai-zerrendaren barruan informazio ekonomikoa, finantzarioa eta jarduerari buruzkoa jasotzen da, eta horrez gain, zuzenean egoeraren berri izateko informazio garrantzitsua ematen da.
- 2.39. Administrazio Kontseiluaren Araudiari gehitu zaio kontseilarietzako Kode Deontologikoa, kide guztiek bete beharreko irizpide etikoak eta jokaera-irizpideak jasotzen dituenak. Kode horretan hainbat irizpide ezartzen dira, besteak beste, etikari dagokionez onargarriak diren erabakiak hartzeko, kontseilarien artean izan daitezkeen interes-gatazketarako, gatazka horiek konpontzeko, etab. Era berean, ondoko kapituluetan egituratuta dago kodea:
- Jokaera-irizpideak
 - Kontseilariaren betebeharrak
 - Isilpekotasun-betebeharrak
 - Gardentasunaren eta informazioaren betebeharrak
 - Interes-gatazka
 - Sozietatearen izena erabiltzea
 - Informazio ez-publikoa



- Lotutako pertsona

- 2.40. Administrazio Kontseiluko kide batek ere ez dio jakinarazi Sozietateari prozesatu dutenik edo haren aurka ahozko epaiketa irekitzeko autoa eman denik, Kapital Sozietateei buruzko Legearen 213. artikuluan adierazitako delituak direla-eta.
- 2.41. Urtero inkesta baten bidez ebaluatzen da Administrazio Kontseilua eta galderak ondoko arloei buruzkoak dira, besteak beste: bileren datak, deialdiak, gai-zerrendako gaien buruzko informazioa, informazio-eskaerei emandako arreta, etab.



3. LOTUTAKO ERAGIKETAK

Lotutako erakundeekin egiten diren eragiketatzat hartuko dira taldeko enpresekin eta elkartuekin egiten direnak. Horrez gain, Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeekin egiten diren transakzioak barne hartzen dira, Sozietatearen izaera publikoaren eraginpean egon daitezkeelako.

2023ko eta 2022ko ekitaldietan Sozietatearekin transakzioak egin dituzten lotutako aldeak eta lotura horien izaera ondoren adierazten dira:

	Loturaren izaera
SPRI- Enpresen Garapenerako Euskal Agentzia	Akzio-gehiengoduna eta taldeko sozietate nagusia
Eusko Jaurlaritza eta Lotutako Entitateak	Taldeko enpresa
Arabako Eraberrikuntza Industrialdea, S.A.	Taldeko enpresa
Araba Garapen Agentzia SA	Akzioduna
Teknologi Elkartegia, S.A.	Taldeko enpresa
Gipuzkoako Zientzia eta Teknologia Parkea, S.A.	Taldeko enpresa
Finantzen Euskal Institutua	Lotutako enpresa
Vitoria-Gasteizko Udala	Akzioduna

3.1. Lotutako erakundeak

Hauek dira 2022ko eta 2021eko ekitaldien itxieran lotutako erakundeekin izandako saldoak:

2023ko ekitaldia

2023.12.31	Zordunak, taldeko enpresak eta enpresa elkartuak	Taldeko enpresetan epe laburreko kreditua	Hornitzaileak taldeko enpresak eta enpresa elkartuak	Epe laburreko zorrak	Epe luzeko zorrak
SPRI- Enpresen Garapenerako Euskal Agentzia			(10.716)		
Eusko Jaurlaritza eta Lotutako Entitateak		5.690.812			
Finantzen Euskal Institutua				(306.537)	
Guztira		5.690.812	(10.716)	(306.537)	



2022ko ekitaldia

2022.12.31	Zordunak, taldeko enpresak eta enpresa elkartuak	Taldeko enpresetan epe laburreko kreditua	Hornitzaileak taldeko enpresak eta enpresa elkartuak	Epe laburreko zorrak	Epe luzeko zorrak
SPRI- Enpresen Garapenerako Euskal Agentzia	1.798		(9.896)		(4.850.00)
Eusko Jaurlaritzaren eta Lotutako Entitateak		7.534.278			
Finantzen Euskal Institutua				(154.207)	(295.929)
Guztira / Total	1.798	7.534.278	(9.896)	(154.207)	(5.145.929)

Lotutako erakundeekin 2023ko eta 2022ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldietan egindako transakzioak honako hauek dira:

2023ko ekitaldia

2023	Jasotako Zerbitzuak	Zerbitzu emateak	Finantza gastuak
SPRI- Enpresen Garapenerako Euskal Agentzia	18.125	42.800	43.158
Bizkaiko Teknologia Parkea, S.A.	27.640		-
Gipuzkoako Zientzia eta Teknologia Parkea, S.A	-	15.457	-
Finantzen Euskal Institutua	-	-	3.731
Arabako Eraberrikuntza Industrialdea, S.A.			
Guztira	45.765	58.257	46.889

2022ko ekitaldia

2022	Jasotako Zerbitzuak	Zerbitzu emateak	Finantza gastuak
SPRI- Garapenerako Euskal Agentzia	10.438	51.839	27.556
Bizkaiko Teknologia Parkea, S.A.	23.611		
Gipuzkoako Zientzia eta Teknologia Parkea, S.A		11.289	
Finantzen Euskal Institutua			13.116
Arabako Eraberrikuntza Industrialdea, S.A.		1.369	
Guztira	34.049	64.497	40.672



Sozietatearen ohiko trafiko-eragiketei dagozkie loturadun aldeekin egindako transakzioak eta loturarik gabeko erakundeei aplikatzen zaizkien antzekoak diren merkatu-prezioen arabera egiten dira.

3.2. Administrazioaileak eta Goi Zuzendaritza

2023ko eta 2022ko ekitaldian, Sozietatearen Administrazio Kontseiluko kideek ez dute inolako ordainsaririk jaso soldata, dieta edo bestelako kontzeptuengatik.

2023ko eta 2022ko abenduaren 31n, Sozietateak ez du pentsioen eta bizi-aseguruen arloan hartutako betebeharririk Administrazio Kontseiluko eta Goi Zuzendaritzako aurreko edo oraingo kideei dagokienez, eta ez du haien kontura berme gisa hartutako betebeharririk. 2023ko ekitaldian, 5.698 euroko prima ordaindu da administrazioaileentzat kontratatutako erantzukizun zibileko aseguruagatik (5.236 euro 2022ko ekitaldian).

2023ko eta 2022ko ekitaldian, ez da gertatu merkataritza-sozietate baten eta bertako edozein bazkideren edo administrazioailearen edo haien kontura diharduen edozein pertsonaren arteko edozein kontraturen amaierarik, aldaketarik edo azkentzerik, Sozietatearen ohiko trafikotik kanpoko eragiketa denik edo ohiko baldintzetan egiten ez denik.



4. ARRISKUEN KONTROLA

Sozietatearen finantza-arriskuen kudeaketa Finantza Zuzendaritzan zentralizatuta dago. Zuzendaritza horrek beharrezko mekanismoak ditu interes-tasen eta kanbio-tasen aldaketekiko eta kreditu- eta likidezia-arriskuekiko esposizioa kontrolatzeko. Ondoren, Sozietateari eragiten dioten finantza-arrisku nagusiak adieraziko dira:

4.1. Merkatu-arriskua

Finantza-tresna baten arrazoizko balioa edo etorkizuneko eskudiru-fluxuak aldatu ahal izateko arriskua da, interes-tasetan (interes-tasaren arriskua), kanbio-tasan edo prezio- eta eskaintzako beste arrisku batzuetan izandako aldaketen ondorioz.

Prezio-arriskua

Sozietatea ez dago kotizatutako lehengaiaren prezioaren arriskuaren eraginpean. Era berean, ez du kotizaziodun inbertsiorik.

Interes-tasaren arriskua arrazoizko balioan-

Sozietateak arrazoizko balioan duen interes-tasaren arriskuarekiko esposizioa ez da esanguratsua, ez baitu aktibo eta pasibo finantzario garrantzitsurik interes-tasa finkoan.

Truke-tasaren arriskua-

Ez dago truke-tasaren arrisku esanguratsurik, eragiketa ia guztiak eurotan egiten direlako.

4.2. Likidezia-arriskua

Sozietateak finantza-tresna batean behar bezain azkar eta kostu gehigarri esanguratsuetan erori gabe desinbertitzeko zailtasunak izateko arriskuaz ari da, edo ordainketa-obligazioei aurre egin behar zaien unean likideziarik ez izateari lotutako arriskuaz.

Sozietateak likidezia-arriskuaren kudeaketa zuhurra egiten du, behar besteko eskudiruari eustean oinarrituta. Maniobra-funts positiboa du eta zorpetzeko ahalmen gehigarria.

Finantza Zuzendaritzak Sozietatearen likidezia-erreserbaren aurreikuspenen jarraipena egiten du, eskudiruaren erabilgarritasuna eta eskudiruaren baliokideak barne (11. oharra), espero diren diru-fluxuen arabera.

Likidezia ziurtatzeko eta bere jardueraren ondoriozko ordainketa-konpromiso guztiei erantzun ahal izateko, Sozietateak 11. oharrean zehazten den diruzaintza eta 16. oharrean zehazten den *cash pooling*a ditu, baita balantzeak erakusten duen maniobra-funtsa ere.

Sozietateak bere jarduera garatzeko behar dituen finantza-baliabideak lortzeko gaitasuna Euskal Autonomia Erkidegoko Urteko Aurrekontuetan finkatzen da. Finantza-baliabide horiei buruzko baldintzak, aktiboak zein pasiboak, Euskadiko Administrazioak



eta bertan diharduten finantza-erakundeek urtero sinatzen duten hitzarmenaren bidez arautzen dira. Hitzarmen honek kasu bakoitzean aplikatu beharreko interes-tasak, komisioak eta abar ezartzen ditu, Euriborraren inguruan ezarritakoak.

Finantza-egitura-

1. oharrean adierazten den bezala, Sozietatea SPRI Taldekoa da. Taldearen eragiketak akziodunek adostuta finantzatzen dira, kreditu-erraztasunak kontratatuz eta aurreikusitako beharrei erantzuteko kapitala handituz, zorraren eta kapitalen merkatuaren egoeraren eta igurikimenean arabera.

4.3. Kreditu-arriskua

Sozietatearen finantza-aktibo nagusiak honako hauek dira: taldeko enpresentzako kredituak, eskudiru-saldoak eta merkataritza-zordunak eta kobratu beharreko beste kontu batzuk, Sozietateak kreditu-arriskuarekiko duen gehieneko esposizioa adierazten dutenak.

Sozietateak, alde aurretik, lokalak errendatzeko edo lurzatiak saltzeko eskaerak banan-banan aztertu ditu. Bestalde, prezioa zatika ordaintzen bada, jabetzaren eskualdaketa formalizatzen den unean higiezinak jabaria erreserbatzeko itunarekin formalizatuta daude, hitzartutako zenbateko guztiak garbitzen diren bitartean. Hori dela eta, ez da arrazoi horrek eragindako arrisku nabarmenik frogatu.

Aurreko ekitaldietako esperientziaren eta zordun bakoitzaren inguruabar zehatzen arabera Sozietatearen Zuzendaritzak zenbatetsitako narriaduragatiko balio-zuzenketa balantze garbian islatzen dira zenbatekoak.

2023ko eta 2022ko abenduaren 31n, Sozietateak zuzenketa bat eratu du bere merkataritza-kontuen balio-narriaduragatiko galerengatik, 0 euro eta 0 euro kobratzeko. (hori da Sozietateak data horretan berandutzako edo narriatutako aktiboekiko duen esposizioa).

Bestalde, eskudiru-saldoak finantza-erakundeetan mantentzen dira, eta kaudimen-maila egokia dute.

- 4.4. 2023an, Arrisku Penalen Eskuliburua eguneratu da, eta bertan jasotako monitorizazioa eta kontrolak egin dira. Aipatzekoa da, halaber, 2023an ez dela salaketarik jaso.
- 4.5. Administrazio Kontseiluko abokatu aholkulari bat izendatu da, Kontseiluan lortutako akordioaren balio juridikoa bermatzeko mekanismo gisa.
- 4.6. Administrazio Kontseiluko kide guztientzat erantzukizun zibileko estaldura duen aseguru-poliza dago, enpresaren kargura eta kontura, Kontseiluko kideen erantzukizun-erregimenaren aplikazioa dela-eta sor daitezkeen gatazken aurrean lege-estaldura izateko.



5. BATZAR NAGUSIA

- 5.1. Batzar Nagusia eratzeko quorumari dagokionez, ez dago desberdintasunik Kapital Sozietateei buruzko Legean aurreikusitako gutxieneko erregimenarekin.
- 5.2. Akordio sozialak hartzeari dagokionez, ez dago desberdintasunik Kapital Sozietateei buruzko Legean aurreikusitako erregimenarekin.
- 5.3. Batzar Nagusiak izaera unibertsalarekin egin ohi dira.
- 5.4. Batzar Nagusiko presidentea eta Administrazio Kontseiluko presidentea pertsona bera dira.
- 5.5. Sozietateak ez du egin Batzar Nagusiko Araudirik.
- 5.6. Txosten honek aipatzen duen ekitaldian Batzar Nagusietan izandako bertaratze-datuak honako hauek dira:

BATZARRAK	Data	Asistentziari buruzko datuak		
		Presentziaren %	Ordezkaritzaren %	Guztira
Ohiko Batzar Nagusia	2023.06.14	% 100	%0	% 100
Ezohiko Batzar Nagusia	2023.10.04	% 100	% 0	% 100

- 5.7. Txosten honi dagokion ekitaldian egindako Batzar Nagusietako akordio guztiak aho batez hartu dira, eta honako hauek dira:

2023ko ekainaren 14an egindako Ohiko Batzar Nagusia

1. Sozietatearen urteko kontuak (egoera-balantzea, galdu-irabazien kontua, ondare garbiaren aldaketan egoera, diru-fluxuen egoera eta memoria), eta Sozietatearen kudeaketa-txostena aztertzea eta onestea, hala badagokio. Hori guztia 2022ko abenduaren 31n itxitako ekitaldiari dagokionez.
2. 2022ko ekitaldiko emaitza aplikatzeko proposamena aztertzea eta, hala badagokio, onartzea.
3. Administrazio-organoak 2022ko ekitaldian egindako kudeaketa aztertzea eta, hala badagokio, onartzea.
4. Kontseilaria kargutik kentzea eta izendatzea.
5. 4.849.988 euroko ezohiko kapital-gehikuntza egitea eta sozietatearen estatutuen 2. artikulua aldatzea.
6. 1.999.946 euroko kapital-gehikuntza egitea eta sozietatearen estatutuen 2. artikulua aldatzea.
7. Hartutako akordioak publiko egiteko eskumena.
8. Batzarraren akta irakurtzea eta, hala badagokio, onestea.

2023ko urriaren 4an egindako Ezohiko Batzar Nagusia

1. Kontseilariak kargutik kentzea eta izendatzea.
2. Sozietatearen kapitala behin edo behin baino gehiagotan handitzea, 2024ko abenduaren 31 baino lehen eta gehienez ere 2.199.95 euro arte, Arabako Parke Teknologikoa handitzeko lurak erosteko finantzaketarako.
3. Hartutako akordioak publiko egiteko eskumena.
4. Batzarraren akta irakurtzea eta, hala badagokio, onestea.



5.8. Estatutuetan ez dago mugarik Batzar Nagusira joateko beharrezkoa den gutxieneko akzio-kopuruari buruz.

AZKEN OHARRA:

Administrazio Kontseiluaren Estatutuaren edukira sartzeko helbidea eta modua web orrian zuzenean sartzea da: www.parke.eus